

'BizkaiaGara Eguna 2023'

BizkaiaGara-k Urkiolan egingo den hondakin bilketa batean parte hartzera animatzen ditu herritarrak

Ekainaren 11n, igandea, 10:00etatik 15:00etara, BizkaiaGara-k zaborraren aurkako ingurumen ekimen bat antolatuko du Bizkaiko parke natural ospetsuan. Izen-emateak zabalik daude jada www.bizkaiaagara.eus web gunean.

BILBO, 2023ko maiatzak 18- BizkaiaGara-k ekainaren 11n, igandea, 10:00etatik 15:00etara, **BizkaiaGara Eguna 2023** ospatuko du. **Ingurumenaren Munduko Egunaren** baitan (ekainak 5), BizkaiaGara-k lurraldeko herritarrei dei egiten die **hondakin bilketa** batean parte har dezaten Urkiolako parke naturalean. Zaborraren aurkako ingurumen-aktibazioko ekimen honen helburu nagusia **inguruaren kalitatea hobetzea** eta behar bati erantzutea da, hondakinen sailkapenaren eta birziklapenaren garrantziaz **sentsibilizatu** eta balioan jartzeaz gain. Leire Ortiz de Zarate BizkaiaGara-ko koordinatzaileak azaldu duenez, "jendea Urkiolara hurbiltzea nahi dugu, familian edo koadrilan, gure ingurune naturalak zaindu eta parte-hartzaileen konpromiso soziala eraldatu nahi duen bilketa aktibatzaile honen parte izateko".

10:00etatik 15:00etara, parkeko hiru gunetan (10:45etik 12:30era, gutxi gorabehera) egingo den hondakin bilketaz gain, bildutako zaborrak sailkatuko dira, zaborraren inpaktua eta ingurumenaren kalitateari egiten diogun ekarpena bertatik bertara ikusi ahal izateko. Horrez gain, **sentsibilizazio, entretenimendu tailerrak eta musika** egongo dira, goiza girotzeko, baita Urkiolako Parketxean (Toki Alai) ekintzak egiteko aukera ere. "Gure asmoa da BizkaiaGara Eguna 2023an jendea aktibatzea eta jendeak parte hartzea, gozatzea, ikastea eta gurekin ospatzea. Uste dugu funtsezkoa dela gure ingurunea ezagutzea eta zaintzea garapen iraunkorrako baterantz aurrera egin ahal izateko", esan du Ortiz de Zaratek. "Asko dira pertsonok sortzen ditugun eta naturan abandonatzen ditugun hondakinak, eta ondorioak izaten dituzte ingurumen-ekosistemetan".



Adin guztietarako jardunaldi irekia izango da. Urkiolara **norberaren ibilgailuan edo antolakuntzak Durangotik jarriko dituen autobusetan** gerturatu ahal izango da dohainik, jende pilaketak saihesteko eta joan-etorriak errazteko. Halaber, BizkaiaGara-k zaborra biltzeko beharrezko materiala emango du (eskularruak eta poltsak), eta langile espezializatuek gidatuko dituzte hondakin bilketa ibilbideak.

Izen-emateak, banaka zein taldeka, dagoeneko zabalik daude www.bizkaiaagara.eus web orrian. Zalantzak argitzeko posta elektronikoko bat (eguna@bizkaiaagara.eus) eta 944161511 kontaktu telefono bat ere badaude.

Herritarren ekintzarako, boluntariotzarako eta lan komunitariorako espazioa da BizkaiaGara, eta gure lurraldeko pertsonen, erakundeen eta organizazioen zerbitzura dago. BBK-k, Bizkaiko Foru Aldundiak eta EDE Fundazioak bultzatutako proiektua da.

Informazio gehiagorako:

Garazi Barriuso

komunikazioa@bizkaiaagara.eus

650207926 - 944161511

